

# 32

# EUSKARAREN SENTSIBILIZAZIORAKO PILULA 2026

elhuyar

**HIZTEGIA**

**LITERATURA**

**BERRIAK**



## GANDORRA JAITSI

Norbaiten harrokeria, handikeria edo nagusikeria apaltzeari eta umiltzeari esaten zaio.



The screenshot shows a mobile application interface. At the top, there is a white header bar with a search icon (magnifying glass) on the left, a star icon in the center, and the word "berria" in bold black text on the right. Below the header is a white content area. The main headline is "Gandorra jaitsi zaio" in bold black text. Below the headline is a paragraph of text: "Distiratsu hasi zen Osasuna, baina behera egin du azken bi hilabeteetan, eta igotzeko postuetatik urrundu da. Lorcari irabazi nahi dio gaur, urtea aho zapore gozoarekin bukatzeko."

# 'ZALDI BAT'

## LITERATURA



Maddi Ane  
Txoperena Iribarren

## Zaldi bat

txalaparta



Maddi Ane Txoperenaren hirugarren eleberria argitaratu da berriki.

Miren protagonistaren eta mendian aurkitzen duen zaldi baten arteko harremanak osatzen du eleberriaren ardatza. Beste hainbat gairen artean, amatasunak, adiskidantzak, bikote harremanek, heriotzak eta doluak zeharkatzen dute hari nagusi hori.

Zazpi ataletan kontatuta dago istorio nagusia. Txalapartako editore Iñigo Satrustegik azaldu duenez, «Denek ez dute lotura argirik zaldiaren istorio nagusiarekin, baina eleberriak dakarren atmosferaren osagarri modura funtzionatzen dute. Batzuek paisaiari egiten diote erreferentzia, eta beste batzuek testuinguru historikoari».

# EHZ FESTIBALAK 30 URTE

**BERRIAK**

Festibalak 30 urte bete ditu aurten, eta ibilbide horren nondik norakoak bildu dituzte 'Auzolanaren lurretan: 30 urtez zuzenean' liburuan. Elkar argitaletxeak argitaratu du, eta liburua kolektiboki pentsatua izan da. Dagoeneko salgai da.


30. urtebetetzearen neurriko festibal berezia prestatu nahi dute EHZko laguntzaileek. Jadanik jakinarazten dute, kultur-eskaintzan, mintzaldi zein tailerren egitarauan, gunearen apainketan zein ekitaldietan sorpresak izanen direla. EHZ beti izaten da bizipen berezia, aurten, are gehiago.



**EKAINAK 26-27-28**

**EHZ** The logo for EHZ, featuring the letters 'EHZ' in a bold, white, sans-serif font. A small white star is positioned above the 'Z'. To the right of the 'Z' is a stylized white symbol that resembles a combination of the letters 'E' and 'H'.

# BERRIAK



NOLA EUSKARATU  
ABIZENA?

